

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### GIZARTE POLITIKEN SAILA

**59/2021 Foru Agindua, apirilaren 13koa. Aldatzea martxoaren 2ko 16/2021 Foru Agindua, arautzen dituen Arabako Lurralde Historikoko adineko pertsonen eta desgaituen egoitza zentroetako bisitak eta irteerak COVID-19aren osasun krisialdian, zentro horietako txertoa jartzeko prozesua bukatu ondoren**

Martxoaren 6an, lehendakariak 13/2021 Dekretua eman zuen, zeinaren bidez prebentzio neurri espezifikoak 2021ean testu bakar batean lehen aldiz bateratu eta eguneratu baitziren, alarma egoeraren deklarazioaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko. Dekretu hori martxoaren 26ko 16/2021 Dekretuak aldatu zuen martxoaren 27an.

Martxoaren 2ko 16/2021 Foru Agindua arautzen du COVID-19aren osasun krisialdian nola egin behar diren Arabako Lurralde Historikoko mendekotasun egoeran dauden adinekoen eta desgaituen egoitza zentroen erabiltzaileen irteerak eta haien senitartekoen eta/edo hurbilekoen bisitak, bai eta zentro pribatuetan Arabako Foru Aldundiak itunduta dituen plazen erabiltzaileen irteerak eta bisitak ere, eta ezartzen du bertan behera utziko direla irteerak, baldin eta zentroa COVIDaren semaforoaren arabera kolore gorriko udalerrian badago. Hain zuzen, intzidentzia tasa 100.000 biztanleko 500 kasukoa edo hortik gorakoa zenean sartzen zen kolore gorrian udalerria.

Orain, Eusko Jaurlaritzak 100.000 biztanleko 400 kasuren atalasea ezarri duenez neurri gehigarriak hartzeko mugatzat, segurtasun juridikoaren mesedetan, egokia da atalase hori indarreko foru araudira eramatea, betiere helburutzat hartuta, batetik, egoiliarren osasuna zaintzea eta, bestetik, lehenago hartutako neurrietan malgutasuna babestea, zentroetako egoiliarrek harreman handiagoa izan dezaten senideekin eta hurbilekoekin, horrek ezbaierik gabe hobetu egiten baititu beren bizi kalitatea, ongizate emozionala eta pribatutasunaren eta mugimendu askatasunaren kudeaketa.

Zentro horietan bai egoiliarrek bai langileak txertatu izanari esker, COVID-19k ez du hildakorik eragiten eta nabarmen jaitsi da erregistratutako kasuen kopurua eta haien larritasuna, baina neurriak hartzen jarraitu behar da, txertaketak ez dakarrelako arriskua erabat desagertzea.

COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko premiazko prebentzio, euste eta koordinazio neurrien martxoaren 29ko 2/2021 Legeak 10. artikuluan xedatzen duenaren arabera, administrazioak arduratuko dira beren ohiko jarduera uneoro kutsatze arriskua prebenitzeko moduan gauzatzen dela zaintzeaz.

2021eko apirilaren 6az geroztik, Arabako Lurralde Historikoko intzidentzia tasa 100.000 biztanleko 400 kasutik gorakoa da. Atalase hori Eusko Jaurlaritzak ezarri du COVID-19a geldiarazteko neurri gehigarriak hartzeko mugatzat eta, beraz, berrikusi behar dira 16/2021 Foru Aginduan semaforo gorri deritzonari egiten zaizkion aipamenak eta foru agindua egokitu behar da 100.000 biztanleko 400 kasuren muga berrira.

Horregatik, eta behin zentro horietako txertatze prozesua amaituta, eta saiatzearen segurtasun printzipioa eta egoiliarrek izan behar dituzten neurri terapeutikoak bateratzen, proposatzen da aldatzea hirugarren xedapen zatia, zeinak irteerak arautzen baititu intzidentzia tasa 100.000 biztanleko 400 kasukoa edo hortik gorakoa denean, eta ezartzea astean bi irteera egin daitezkeela gehienez, irteerak guztiz kendu ordez, uste delako irteerak beharrezkoak direla erabiltzaileentzako neurri terapeutiko gisa.

Sail honek eskumena du zentroek behar bezala funtzionatzeko behar diren jarraibideak emateko eta erabiltzaileen eta langileen osasuna bermatzeko, honako hauek oinarri hartuta: abenduaren 5eko 12/2008 Legea, Gizarte Zerbitzuen; urriaren 6ko 185/2015 Dekretua, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroarena; abenduaren 10eko 44/2020 Dekretua, zeinaren bidez prebentzio neurri espezifikoak testu bakar batean bildu eta eguneratzen diren, alarma egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko; eta martxoaren 29ko 2/2021 Legearen 10. artikulua.

Indarrean dagoen araudian esleitutako eskumenen arabera, honako hau

#### XEDATZEN DUT

**LEHENENGOA.** Aldatzea martxoaren 2ko 16/2021 Foru Aginduaren hirugarren xedapen zatia. Honela geratuko da idatzita:

**HIRUGARRENA.** Egoiliarren irteerei dagokienez, ibilaldi terapeutikoei izango dute lehentasuna, eta egoitzaren inguruko leku irekietan egingo dira, senideek edo hurbilekoek lagunduta.

Oro har, egoiliar bakoitzak lau irteera egin ahal izango ditu astean, egoera epidemiologikoko horretarako aukera ematen duen zentro guztietan. Irteeretan, saihestu egingo dira, beti, leku itxiak eta jendetsuak. Irteerek gehienez ere ordubete iraungo dute, gutxienez ordu erdiko irteerak ziurtatuz betiere, eta gehienez ere bi pertsonak (senideak edo hurbilekoak) lagundu ahal izango dute egoiliar bakoitza.

Zentroak irteeren maiztasun eta dibertsitate handiagoa izatea baimendu ahal izango du, egoiliarren egoera pertsonalaren, harremanen eta osasun alertako egoera deklaratu aurreko dinamikaren arabera.

Irteera batetik egoitza zentrori itzultzean, aplikatuko dira gizarte eta osasun arloko egoitza zentroetan COVID-19a jagon eta kontrolatzeko Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak egindako 2021eko martxoaren 25eko protokoloak, edo haren ordez indarrean dagoenak, irteerarako ezarritako arauak.

5.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan dauden zentroetan, baldin udalerrriak azken 14 egunetan COVID-19aren kasu positiboen intzidentzia tasa metatua 100.000 biztanleko 400 kasukoa edo hortik gorakoa badu Eusko Jaurlaritzak emandako datuen arabera, astean bi irteera egin ahal izango dira gehienez.

Egoitza zentroetan astean bi irteerako muga automatikoki jarriko da indarrean Eusko Jaurlaritzak adierazten duen unean kasu kasuko udalerrriaren azken 14 egunetako COVID-19aren kasu positiboen intzidentzia tasa metatua 100.000 biztanleko 400 kasukoa edo hortik gorakoa dela.

5.000 biztanleko edo hortik beherako udalerrietan, astean bi irteerako muga ezarriko da, baldin eta zentro bakoitzaren eta zentroa dagoen udalerrriaren egoera aztertuta, egoera epidemiologikoaren arabera beharrezkoa bada neurri hori hartzea.

5.000 biztanleko edo hortik beherako udalerrietan dauden egoitza zentroetako erabiltzaileen astean bi irteerako muga indarrean jarriko da automatikoki Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Saileko diputatuak dagokion erabakia hartzen duen unean bertan.

**BIGARRENA.** Foru agindu hau 2021eko apirilaren 14an (asteazkena) jarriko da indarrean, Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den eguna gorabehera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko apirilaren 13a

*Gizarte Politiken Saileko foru diputatua*  
**EMILIO SOLA BALLOJERA**

*Gizarte Zerbitzuen zuzendaria*  
**ANA BELÉN OTERO MIGUÉLEZ**